

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Basabe Kortabarria Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den araudiaren babesean, osoko bilkuran erantzuteko 'Jon Paredes Manot Txikiri familiak egin asmo zuen oroimen ekitaldiari buruz' hurrengo **interpelazioa** egiten dio Rodolfo Ares Taboada Herrizaingo sailburuari:

ZIOA

Frankismoaren diktadurak erail zuen Jon Paredes Manot 'Txikiri' omenaldia egin nahi izan zion bere familiak Zarauzko hilerrian, joan zen irailaren 27an, azkeneko 34 urteotan egin izan duen bezala. Baina senitartekoak eta lagunak bertaratu zirenean (25 lagun inguru) ertzain batek ekitaldia adierazi zien, Ahaztuak-ek leku berean ekitaldia deitu zutela argudiatuz, debekatua zegoela eta, beraz, alde egin behar zutela. Egoera ikusita, bertan zen Ahaztuak-eko kideak euren deialdia bertan behera uzten zutela adierazi zien ertzainei, baina hala ere, ertzainek ez zieten utzi senitartekoei eta lagunei urtero egin ohi duten ekitaldi xumea egiten. Ez hori bakarrik, hara agertutako senitartekoei identifikatzeko eskatu zieten, baina hala ere, ezin izan zuten ekitaldia burutu. Onartezina deritzogu Ertzaintzak biktima baten senitartekoei haren hilobiaren aurrean oroimen ekitaldia egitea debekatzeari.

Hori dela eta, Herrizaingo sailburu Rodolfo Aresi hurrengo interpelazioa egiten diogu:

INTERPELAZIOA

Zergatik ukatu zion Ertzaintzak Zarauzko hilerrian Frankismoak eraildako Jon Paredes Manot 'Txiki'ri senitartekoei eta lagunek oroimen ekitaldia egitea?

Gasteizen, 2009ko irailaren 30ean

Mikel Basabe Kortabarria
Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea